

Imotz**EKO** brigada

Imozko garbiketa-taldea

Otsailaren 27an, larunbatarekin, 15 bat imoztar bildu ginen Latasan inguruetako zaborra biltzeko asmoz. Eguraldia lagun, goiz ederra pasa genuen elkarrekin, ume zein heldu. Imotz**EKO** taldearen lehendabiziko *uxaldia* izan zen eta abiapuntutik gehiegi urrundu gabe, zabor dezente bildu genuen. Pintza biltzaileekin sekulako gozatua hartu genuen gainera, bai eroso!

Frontoi estalitik bi talde atera ginen: batzuk Urritzako benten aldera, eta beste batzuk Latasako geltoki aldera. Hasieran imajina genezakeena baino hurbilago gelditu ginen, topatutako zabor-kantitatea zela eta.

Polita izan zen adin-aniztasuna. Elkarlana nagusitu zen eta partaide bakoitzak bere harri-koskorra ekarri zuen. Aberasgarria iruditzen zitzaigun txiki eta nagusiagoen arteko lankidetzak, eta gogoeta interesgarriak piztu zitzaizkien umeei. *Zergatik botatzen du jendeak zaborra, metro gutxira zakarrontzia egonik?* Haiek dira etorkizuna, eta arront inportantea da ingurumenaren aldeko jarrerak barneratzea.

Oinezkoen jakinmina sorrarazi genien, bizikletaz edo kotxez pasatzen zirenei ere zer pentsatua eman genien... Alegia, helburu nagusia bete genuen: eredu izatea eta kontzientziak astintzea.

Plastikoa izan zen protagonista nagusia, jakina. Tamaina handiko plastikoak, baita plastiko txiki-txikiak ere, auskalo noiz botatakoak. Latasatik oraindik atera gabe, karrika eta errepide bazterretan zigarro-mutxikin franko, latak... Plazaola bidea aski garbi zegoela ematen zuen lehen begiratuan, baina bidexkatik atera eta berehala, erreka bazterrean edo soroetan, denetarik ikus zitekeen. Eta zer esanik ez autobus-geltokietan! Ikusgarria, egiatan, zenbat zaku bete genituen.

Plastiko eta edari-latez gainera, bestelako zaborra eskuratu genuen: pakak lotzeko sokak, herdoildutako lanabesak, pixez betetako boteak, ehiztarien kartutxoak, kableak, neumatikoak, maskarillak, botilak (plastikoazkoak eta kristalezkoak), kontserba-latak

eta poteak, burniak, animaliaaren baten eskeletoa poltsa baten barnean, konpresak eta tanpoiak, preserbatiboak, eta abar, eta abar. Nazkagarria bezain harrigarria.

Heldu diren aldietarako gogotsu gaude, bistan ez dagoen zaborra egon, badelako, nahi adina. Bestalde, lehen aldi hartan ezin eskuratutako zaborrak hantxe segitzen du, leku berean, urak edo haizeak noiz eramango. Guretzat ikasketa izan zen, jakina, beharrezko zenbait tresneria falta zitzaigula (aizturak, katiuskak...), eta datozen topaketetarako hori fintzen ahaleginduko gara.

Udaberri aldera berriz ikusiko garelakoan gaude. Baina, bitartean, zuen herrietan ere auzolanak antolatzen animatzen zaituztegu, *paskualia* hartu eta aspaldiko zabortegetara hurbildu, adibidez.

Eutsi horri!

ImotzEKO brigada.